

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA
ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

40-191/2021 Foru Agindua, azaroaren 4koa, zeinak 40-169/2021 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, Gipuzkoako Futbol Federazioaren estatutuen aldaketa onestekoa, baliozkotzen duen eta hauek argitaratzea agintzen duen.

Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak honako Foru Agindu hau eman du gaur:

Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 5 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikotako foru organoei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, lurraldeko kirol federazioak onestea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jardueraren pribatuaren kalterik gabe.

Alde horretatik, 25.1 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, kirol federazioek, eskuordez, burutzen duten administrazio-egiteko publikoetako bat da bere estatutuak eta araudiak onartzea, eta egiteko hori, ikusi dugunez, eskumena duen tutoretza Administrazioak kontrolatzen du. Kontrol hori, besteak beste, gauzatzeko da administrazioak dagokion onespenera emanez federazioen estatutuei eta araudiei, aipatutako 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 29.2 artikuluan jasotzen duen moduan: «Lurralde-federazioen estatutuak, bai eta estatutuotan izan litezkeen aldaketak ere, dagokion lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira dagokion administrazioak onartu eta gero».

2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskal Herriko kirol federazioei buruzkoak, gai horren inguruan aipatutako 14/1998 Legea garatzen duenak, berriz ere azpimarratzen du federazioen estatutuen onspenaren gaia. Horrela, bada, erregelamenduzko xedapenaren 65. artikulua, «Estatutuen administrazio onarpena, argitalpena eta indarraldia» izenekoak, lurralde federazioen estatutuetako arauari dagokienez, beste gai batzuen artean, honako hau xedatzen du:

«6. Lurralde federazioen estatutuak nahiz horien aldaketak dagokion lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, behin administrazioaren aldetik onartu direnean.

7. Federazio estatutuak indarrean sartzeko, onartu egin behar dira, eta dagokion aldizkari ofizialean osorik argitaratu behar dira. Estatutu horiek argitaratu eta hurrengo egunetik egongo dira indarrean, bai federatuentzat, bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat».

Bestetik, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretu horretako 70.1 artikulua honakoa xedatzen du: «Estatutuak onartu eta aldatu ahal izateko, beharrezkoa da horretarako deitutako Batzar Nagusira bertaraten diren kideen bi herenek horren aldeko botoa ematea».

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN,
JUVENTUD Y DEPORTES**

Orden Foral 40-191/2021, de 4 de noviembre, que convalida la Orden Foral 40-169/2021, de 30 de septiembre, por la que se aprueba la modificación estatutaria de la Federación Guipuzcoana de Fútbol, y ordena la publicación de los mismos.

El diputado foral de este Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes ha dictado con fecha de hoy la siguiente Orden Foral:

El artículo 5 h) de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, establece que corresponde a los órganos forales de los territorios históricos, en su respectivo ámbito territorial la competencia de aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada.

En este sentido, el artículo 25.1 h) del mencionado texto legal dispone que una de las funciones públicas de carácter administrativo que ejercen, por delegación, las federaciones deportivas es la aprobación de sus estatutos y reglamentos, función que, según hemos visto, está sometida al control de la Administración de tutela competente. Este control se manifiesta, entre otros modos, mediante la preceptiva aprobación administrativa de los estatutos y reglamentos federativos, tal como recoge el artículo 29.2 de la ya citada Ley 14/1998, de 11 de junio, cuando señala que: «los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente territorio histórico».

El Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, que desarrolla en esta materia la Ley 14/1998, de 11 de junio, abunda, como no podía ser de otra manera, en la cuestión de la aprobación de los estatutos federativos. Así, el artículo 65 de la disposición reglamentaria, titulado «Aprobación administrativa, publicación y vigencia de los estatutos», en lo que se refiere a las normas estatutarias de las federaciones territoriales establece, entre otras cuestiones, lo siguiente:

«6. Los estatutos de las federaciones territoriales, así como sus modificaciones, se publicarán, una vez aprobados administrativamente, en el Boletín Oficial del correspondiente Territorio Histórico.

7. La vigencia de los estatutos federativos estará vinculada a su aprobación y posterior publicación íntegra en el boletín oficial correspondiente. Dichos estatutos producirán efectos desde el día siguiente al de dicha publicación tanto para las y los federados como para las terceras personas y entidades».

Por su parte, el artículo 70.1 de ese mismo Decreto 16/2006, de 31 de enero, dispone que «Para la aprobación y modificación de los estatutos será preciso el voto favorable de los 2/3 de los asistentes a la asamblea general convocada al efecto».

Aurreko agindu horiek betez, estatutuen zenbait aldaketa aurkeztu zituen Gipuzkoako Futbol Federazioak Gipuzkoako Foru Al-
dundiko Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Departamentuan,
administrazio onespenez eman ziezaien. Estatutuen aldaketa es-
katutako gehiengoarekin onartu zuen Gipuzkoako Futbol Federa-
zioaren Batzar Nagusiak, 2021eko ekainaren 28ko bilera.

Kiroleko Zuzendaritza Nagusiko teknikariek, aldatutako testua
aztertu ondoren, erabaki zuten ez zuela indarrean dagoen kirol fe-
derazioei buruzko araudia urratzen eta, administrazio onspenez
ematea proposatu zuten.

2021eko irailaren 30eko 40-169/2021 Foru Aginduaren
bidez, Gipuzkoako Futbol Federazioaren estatutuaren egindako
aldaketak onartu ziren. Hala ere, egindako aldaketen laburpe-
nak soilik argitaratu ziren, baina ez onartutako estatutu berrien
testua bere osotasunean. Foru agindu honen bidez, foru agindu
hori baliozkotzen da, eta Gipuzkoako Futbol Federazioaren Ba-
tzar Nagusiak 2021eko ekainaren 28an onartutako estatutuak
berrien testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea
agintzen da.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol
Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

Lehenengo. 40-169/2021 Foru Agindua, irailaren 30ekoa,
Gipuzkoako Futbol Federazioaren estatutuen aldaketa onesten
duena, baliozkotzea.

Bigarren. 2021eko ekainaren 28ko Gipuzkoako Futbol Fe-
derazioaren Batzar Orokorrean onartutako estatutu berrien testu
osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Hirugarren. Foru agindu honen kopia bat bidaltzea Eusko
Jauriaritzako Kirol Zuzendaritzara, Euskal Herriko Kirol Entitateen
Erregistroan inskribatzeko.

Laugarren. Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera
ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu ho-
nen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa au-
kez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epai-
tegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko
epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraz-
tertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko foru diputatu honi,
jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori
eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsio
aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berriazko ebazpena
eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iri-
zitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2021eko azaroaren 4a.—Iñaki Sainz Paredes, idaz-
kari teknikoa. (7262)

En cumplimiento de los preceptos citados, la Federación Gui-
puzcoana de Fútbol presentó, para su aprobación administrativa
ante este Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y De-
porte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la modificación de sus
estatutos. La modificación estatutaria fue aprobada con la ma-
yoría exigida, por la Asamblea General de la Federación Guipuz-
coana de Fútbol, reunida en sesión de 28 de junio de 2021.

Analizado el texto modificado por los técnicos adscritos a la
Dirección General de Deporte, consideraron que no infringe la
vigente normativa sobre federaciones deportivas y propusieron
su aprobación administrativa.

Mediante Orden Foral 40-169/2021, de 30 de septiembre
de 2021, se aprobaron las modificaciones realizadas en los es-
tatutos de la Federación Guipuzcoana de Fútbol. No obstante,
sólo se publicaron extractos de las modificaciones realizadas, y
no la integridad del texto de los nuevos estatutos. Mediante
esta Orden Foral se convalida dicha orden foral y se ordena pu-
blicar el texto íntegro de los estatutos aprobados por la Asam-
blea General de la Federación Guipuzcoana de Fútbol de fecha
de 28 de junio de 2021 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

Primero. Convalidar la Orden Foral 40-169/2021, de 30 de
septiembre, por la que se aprueba la modificación estatutaria de
la Federación Guipuzcoana de Fútbol.

Segundo. Ordenar la publicación del texto íntegro de los
nuevos estatutos aprobados en la Asamblea General de la Federa-
ción Guipuzcoana de Fútbol de fecha de 28 de junio de 2021
en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tercero. Remitir una copia de la presente orden foral a la Di-
rección de Deportes del Gobierno Vasco, a los efectos de su ins-
cripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

Cuarto. La presente orden foral es definitiva y pone fin a la
vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer
directamente contra la misma recurso contencioso-administra-
tivo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Do-
nostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día
siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo,
podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta
diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente
al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recur-
so contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresa-
mente el de reposición o se haya producido su desestimación
presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier
otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 4 de noviembre de 2021.—El secretario téc-
nico, Iñaki Sainz paredes. (7262)



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

	ORR.
I.TITULUA .- Xedapen orokorrak	3
II.TITULUA .- Federazioaren lizentziak eta lehiaketa ofizialak	7
III.TITULUA .- Federazioaren organoak	9
I.Kapitulua .- Xedapen orokorrak	9
II.Kapitulua .- Batzar Nagusia	12
I. Atala .- Batzar Nagusiaren osaera	13
II. Atala .- Batzar Nagusiko kideak hautatzea	13
III. Atala .- Batzar Nagusiaren funtzionamendua	14
III. Kapitulua .- Lehendakaria	17
IV. Kapitulua .- Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Betearazlea	19
V. Kapitulua .- Barne erregimeneko organoak	23
I.Atala .- Idazkari nagusia	23
II. Atala .- Diruzaina	24
III. Atala .- Zuzendaritza Teknikoa-Kirol Zuzendaritza	25
VI. Kapitulua .- Organo teknikoak	25
I.Atala .- Entrenatzaileen Lurralde Batzordea	26
II. Atala .- Epailen Lurralde Batzordea	26
III. Atala IV. .- Entrenatzaileen Eskola	26
Atala .- Futbol afizionatuko Lurralde Batzordea	27
V. Atala .- Emakumezkoen Futboleko Lurralde Batzordea	27
VII. Kapitulua .- Kirol Justiziako organoak	27
I.Atala .- Xedapen orokorrak	27
II. Atala .- Diziplina Batzordea	28
III. Atala .- Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea	28



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

I.TITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

1. Gipuzkoako Futbol Federazioa (aurrerantzean F.G.F.-G.F.F. edo "Federazioa") irabazi asmorik ez duen entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak eta beste kolektibo batzuk biltzen ditu bere baitan, Gipuzkoako lurralde historikoan futbolaren eta areto futbolaren modalitate desberdinak praktikatzeko eta sustatzeko
2. F.G.F.-G.F.F.-k berez dituen eskuduntzez gain, zeregin administratiboak ere betetzen ditu eskuordeturik, eta kasu horretan Herri Administrazioaren laguntzaile moduan jarduten du.

2. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-k lege-arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berariaz prestatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

3. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-k helbide honetan du egoitza soziala: Anoeta pasealekua 1, Donostia.

4. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-k Gipuzkoako Lurralde Historikoa du jarduera eremu oinarrizkoa, Gipuzkoatik kanpo gauzatu ditzakeen jardueren kaltetan izan gabe.

5. artikulua.

Euskara, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza den aldetik, F.G.F.-G.F.F.-koa ere bada, gaztelaniarekiko koofizialtasun-erregimenean. Federazioaren edozein motatako ebazpenak,



argitalpenak eta komunikatuak bi hizkuntzetan emango dira, eta Federazioari egindako jakinarazpenak ere hizkuntza horietako edozeinetan bidali ahalko dira.

6. artikulua

F.G.F.-G.F.F.-k futboleko eta areto futboleko jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatu, bultzatu, baimendu, antolatu eta zuzentzen ditu Gipuzkoako lurralde historikoan.

7. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-k eginkizun hauek izango ditu:

- a) Kirol jarduera federatua antolatu Gipuzkoako lurralde historikoan.
- b) Futboleko eta areto futboleko modalitate bakoitzean lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatu Gipuzkoako lurralde historikoan.
- c) Parte hartzeko eta lehiatzeko bere arauak ezarri, nahiz eta behar denean lurralde eremu zabalagoko federazioek emandako arauak ere bete beharko dituen.
- d) Federazioaren lizentziak tramitatu, gero Euskadiko Federazioak lizentzia horiek eman - ditzan, azken horrek ezarritako betebeharrei eta prozedurari jarraiki.
- e) Bere jarduera aurrera eramaterakoan sortzen diren kirol gatazken berri jakin eta haiek ebatzi, organo judizialen eta arbitralen eskumenaren kaltetan izan gabe.
- f) Herri erakundeei aholkuak eman futbolean eta areto futbolean aritzeko instalazioak eraiki behar direnean.
- g) Arauak betearazi eta diziplinako ahalmena haien arabera erabili.
- h) Dagokion Euskadiko Federazioarekin batera lan egin debekatuta dauden botika gaiak eta multzoak eta kirolean arauz kanpokoak diren metodoak erabil ez daitezen aurre neurriak hartzen, erabilera horiek ikuskatzen eta zigortzen, berariaz ezarriko den araudiaren arabera.
- i) Dagokion Euskadiko Federazioarekin batera lan egin futboleko eta areto futboleko edozein modalitatetako teknikariak eta epaileak prestatzen.



- j) Diru baliabideak zertarako erabili eta nola banatu erabaki; jarduera aurrera eramateko beste erakunde batzuek eskualdatzen dizkioten baliabideak kudeatu, eta baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaindu.
- k) Kide dituen klub eta taldeei agian emango dizkien diru-laguntzak izendatu eta kontrolatu.
- l) EAEko administrazioekin batera elkarlanean aritu kirola bultzatzeko bere helburuak betetzerakoan, eta bereziki, legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetzeta eta aholkularitza eginkizunetan.
- m) Estatutuak eta kirol araudiak prestatu.
- n) Futbolaren eta areto futbolaren ordezkari izan EAEn, eta estamentu guztien partaidetza bideratu eremu horretako lehiaketetan.
- o) Gipuzkoan, futboleko eta areto futboleko aritzen diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta, ahal den neurrian, bermatu.
- p) Eta, oro har, futboleko eta areto futboleko aritzea bultzatzeko eta hobetzeko egokia den guztia xedatu.

8. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k administrazio izaerako zeregin publiko hauek ere izango ditu, dagokion administrazioaren irizpide, zaintza eta kontrolpean:
 - a) Lehiaketa ofizialak kalifikatu, antolatu eta baimendu.
 - b) Futboleko eta areto futboleko ordezkariak antolatu parte hartzen duten lehiaketetan.
 - c) Federazioaren lizentziak bideratu.
 - d) Kirolean indarkeria erabiltzea prebenitu, zaindu eta zigortu.
 - e) Kirol diziplinako ahalmena erabili.
 - f) Kirol Diziplinaren Euskal Komitearen ebazpenak betearazi.
 - g) Bere Estatutuak eta araudiak onartu.
 - h) Eskumena duen administrazio publikoarekin parte hartu eta lankidetzan aritu bere kirol programen garapenean, batez ere eskola kirolekoetan, gizonezko eta



emakumezkoen berdintasuna sustatzen duten programetan, eta herri erakundeak antolatzen dituen guztien intereseko programetan.

i) Federazioaren hauteskunde prozesuak zaindu.

2. F.G.F.-G.F.F.-k bere jardunean gauzatzen dituen egintzak administrazio prozesura komuna arautzen duten arauetan oinarrituko dira.
3. Aurreko atalean adierazitako ekintzen aurka errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Foru Aldundian dagokion organoaren aurrean, eta haren ebazpenarekin amaituko da administrazio bidea. Gora jotzeko errekurtsua azaroaren 66ko 30/1992 Legearen arabera ezarriko da, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkion helegiteak izan ezik.
4. Zeregin publikoak egoki betetzeko, eskumena duen kirol administrazioak bere aholkularitza teknikoak eskainiko dio F.G.F.-G.F.F.-ri.
5. F.G.F.-G.F.F. lankidetzan ariko da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta lankidetzak hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu harekin, helburu, kirol programa, aurrekontu eta eskuordetutako gainerako eginkizun publikoekin zuzeneko lotura duten gaiak zehazte aldera. Hitzarmen horiek izaera juridiko- administratiboa izango dute.
6. F.G.F.-G.F.F.-k kontratu programak izenpetu ahal izango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, gutxienez honakoak barne direla: Programen finantzazio aurreikuspenak, lortu beharreko helburu zehatzak edo zenbatu litezkeenak, bai eta helburu horiek ebaluatzeko edo ikuskatzeko mekanismoak.

9. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k inola ere ezingo ditu eginkizun publikoak eskuordetu dagokion administrazioaren baimenik gabe. Eraginkortasun arrazoiengatik soilik emango da baimena, berak gauzatzeko eta antolatzeko baliabide egokirik ez duenean.
2. F.G.F.-G.F.F.-k, dagokion administrazioaren baimenarekin, eginkizun publikoak eskuordetu ahal izango ditu F.G.F.-G.F.F.-ko kide diren kirol klubetan edo kirol elkarteetan.



10. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-ren barruan ez da utziko inori bereizkeriarik egiten arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritzi eta sinesmenengatik, edota beste edozein egoera pertsonal nahiz sozialengatik.

II. TITULUA - FEDERAZIOAREN LIZENTZIAK ETA LEHIAKETA OFIZIALAK

11. artikulua.

1. Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, bere titularrari Federazioko kide izaera ematen dio, eta futboleko nahiz areto futboleko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du; betiere, lehiaketa bakoitzean diren arauak jarraituz.
2. Federazio lizentzia bakarra izango da, eta, horren bidez, titularra F.G.F.-G.F.F.-ri eta dagokion Euskadiko Federazioari atxikita egongo da.
3. Federazioaren lizentziak dagokion Euskadiko Federazioak emango ditu, alde aurretik F.G.F.-G.F.F.-k izapideak eginda, eta mediku azterketa bat egin beharko da txartelaren jabea lehiaketetan aritzeko gaiturik dagoela ziurtatze aldera.
4. F.G.F.-G.F.F.-k dagokion Euskadiko Federazioarekin adostasunez, aisialdiko edo zerbitzuetako txartela sortu ahal izango du, ofiziala izango ez dena eta borondatezko harpidetza izango duena. Txartel horrek ez du titularra dagokion federazioko kide egingo, eta ofizialak ez diren kirol jarduera batzuetan parte hartzea edo zerbitzu jakin batzuk jasotzea baino ez du ahalbidetuko.

12. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du federatuengandik, federazio horren zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko
2. F.G.F.-G.F.F. da federazio lizentziak izapidetzeko eskumena duen erakundea, eta besteak beste, zeregin publiko horrek ahalmen hauek ematen dizkio:



- a) Federazioaren lizentzien baldintzak eta ondorioak azaldu federatzeko asmoa dutenei.
 - b) Federazioko kide egiteko behar diren agiriak eta datuak bildu.
 - c) Lizentziei dagokien zenbateko osoa kobratu, eta zenbateko hori kitatu Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuaren eta hura garatzeko xedapenen arabera.
1. Dagokion Euskadiko Federazioak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia banatuko du bere - Batzar Nagusian erabakitako eran. Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuaren 25 artikulua a) eta d) ataletan ezartzen dituen zenbatekoak kenduko zaizkio zenbateko gordinari, eta horren emaitza izango da zenbateko garbia. F.G.F.-G.F.F.-k jasoko duen zenbatekoa inola ere ezingo da lehen aipaturiko zenbateko garbiaren %35 baino txikiagoa izan.

13. artikulua.

Dagokion Euskadiko Federazioak onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, Euskadiko Kirol Federazioen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25. artikulua eta ondorengoek ezarritako baldintzen arabera.

14. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F. da ahalmena duen erakunde bakarra lehiaketa ofizialak antolatzeko, kalifikatzeko, agintzeko edo eratzeko, eta titulu ofizialak emateko.
2. Lehiaketa ofizialtzat hartuko dira F.G.F.-G.F.F.-k hala izendatzen dituenak, eta betiere lehiaketen egutegi ofizialean sartuta daudenak.
3. Ezingo dira titulu ofizialak eman lehiaketa ofizial baten ondorio ez bada.

15. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k bere lehiaketa ofizialen egutegi berariazko bat eduki beharko du.
2. Federazioaren lizentzia dutenek soilik parte hartu ahal izango dute lehiaketa horietan, eskubide eta betebeharrak guztiekin.
3. F.G.F.-G.F.F.-k bere funtzioak koordinatu beharko ditu, eta kirol lehiaketen egitura piramidal bermatu beharko du.



III.TITULUA: FEDERAZIOAREN ORGANOAK

I.KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

16. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k organo hauek izango ditu gutxienez:

- a) Gobernua:
 - Batzar Nagusia.
- b) Ordezkaritza:
 - Lehendakaria.
- c) Administrazioa:
 - Zuzendaritza Batzordea.
- d) Barne erregimena:
 - Idazkaritza Nagusia
 - Diruzaintza
 - Zuzendaritza Teknikoa-Kirol Zuzendaritza
- e) Teknikariak:
 - Entrenatzaileen Lurralde Batzordea.
 - Epailen Lurralde Batzordea.
 - Kirol Teknikarien Eskola.
 - Futbol Afizionatuko Lurralde Batzordea.
 - Emakumezkoen Futboleko Lurralde Batzordea.



- f) Kirol Justizia:
- Diziplina Batzordea.
 - Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.
- g) Seko Areto Futboleko Lurralde Batzordea.
- h) 7-8ko Futboleko Lurralde Batzordea.
- i) Hondartzako Futboleko Lurralde Batzordea.
2. Lehendakaria, Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Nagusia izango dira hautazko organoak; F.G.F.-G.F.F.-ren lehendakariak ahalmena izango du gainerako organo guztietako kideak izendatzeko eta izendapenak ezeztatzeko.
3. Aurreko atalean jasotakoaren salbuespena: Kirol Teknikarien Eskolako zuzendaria Euskadiko Futbol Federazioko lehendakariak izendatuko du, F.G.F.-G.F.F.-ren lehendakariak proposatuta.
4. Seko Areto Futboleko Lurralde Batzordeko kideak eta lehendakaria kolektibo horrek berak izendatuko ditu, ezarritako arauen arabera.

17. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-ren gobernu organoetako kide izateko betebeharrak honako hauek dira:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Gipuzkoan edo Gipuzkoako Futbol Federazioan atxikita dauden klubuen udalerrietan administrazio-egoitza izatea. Salbuespen gisa, Batzar Nagusiak baldintza hau kentzea erabaki dezake.
- c) Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasungabetzea ekartzen duen diziplina-zehapen irmorik ez izan.
- d) Epailearen epai irmoaren bidez kargu publikoan aritzeko ezgaitasunera zigortu ez izana.
- e) Epailearen erabaki irmoaren bidez ezgaitzat jo ez izana.

**18. artikulua.**

1. Hautazko organoetako kide guztiak lau urtez ariko dira lanean, olinpiar urteekin bat etorriz, eta berriro hauta ahal izango dira Estatutu hauetan jasotakoaren arabera.
2. Edozein arrazoi dela medio agintaldiaren amaierara iristen ez badira, haien ordezkoez agintaldia amaitu arteko denboran jardungo dute. Kargua utzi dutenak ezin izango dira berriro aurkeztu harik eta hautatuak izan ziren olinpiar aldia igaro are.

19. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren organoetako kideek ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik utziko dute beren kargua:
 - a) Hautatua izan den agintaldia amaitu
 - b) Dimisioa edo heriotza.
 - c) Bere zereginak egitea galarazten dion ezintasuna edo gaitasungabetzea.
 - d) Aurreko artikuluan jasotako hautaezin bihurtzen duen kausaren bat izan.
 - e) Enkaitzea, hautazko karguak ez direnean.
 - f) Estatutu hauetan edo indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste edozein zergati.
2. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen kasuan, zentsura mozioa onartzeagatik ere utzi beharko dute kargua.

20. artikulua.

Besterik erabakitzen ez bada, Federazioaren organoek erabakitakoak era adostutakoak betearazleak izango dira, eta indarrean sartuko dira interesatuei jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

21. artikulua.

1. Federazioko organoek hartutako erabaki guztiak aktan idatziko ditu idazkariak, eta hor datu hauek ipini behar ditu gutxienez: Parte hartu dutenen izen-abizenak, bilera non eta noiz egin



den, eztabaidagai nagusiak, bozketa nola egin den eta zer emaitza izan duen, eta zer erabaki duten.

2. Hartutako erabakiaren aurkako botoa eman dutenak, horretarako arrazioa azalduta, betiere, salbuetsita egongo dira organo kolegiatuek hartutako erabakien ondorioz etor litekeen erantzukizunetik.

II. KAPITULUA - BATZAR NAGUSIA

22. artikulua.

Batzar Nagusia Federazioko gobernu organo gorena da, eta bere gain izango ditu eginkizun hauek:

- a) Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratu.
- b) Federazioaren kontuak eta aurrekontuak onartu.
- c) Federazioa desegitea erabaki.
- d) Lehendakariari eta Zuzendaritza Batzordeari aurkezturiko zentsura-mozioa onetsi.
- e) Lehiaketa egutegi ofiziala onartu.
- f) Federazioaren jardun plana onartu.
- g) Federazioaren araudiak nahiz estatutuak eta horien aldaketak onartu.
- h) Ondasun higiezinak erabili, saldu, eta kargatu, maileguak hitzartu, eta zorraren edo ondarearen zati alikuotaren tituluak jaulki.
- i) Duten garrantzia dela-eta Batzar Nagusiaren onespina behar duten erabaki horiek guztiak hartu.

23. artikulua.

1. Batzar Nagusia lau urtez behin hautatuko da bozketa libre, zuzeneko, berdin eta isilpekoaren bidez, udako olinpiar jokoak izaten diren urteetan.
2. Salbuespenez, eta berriazko administrazio-baimena eskuratu ondoren, hauteskunde-prozesua atzeratu edo aurreratu egin ahal izango da, aurreikusitako datetan ezinezkoa gertatzen denean.



I. ATALA - BATZAR NAGUSIAREN OSAERA

24. artikulua.

Batzar Nagusiak gehienez 115 kide izango ditu, eta klub, kirol elkarte, jokalaria, teknikari eta epaileen estamentuen ordezkariak osatuko dute, ondorengo proportzio honetan:

- a) Klub eta kirol taldeen estamentuen ordezkariak laurogeita hamar (90) batzarkide izango dira. Areta futbolari dagokionez, arlo honetako klub eta kirol taldeen estamentuen ordezkariak zortzi (8) batzarkide izango dira; klub bera, ordea, ezingo da 11ko futboleko eta areto futboleko ordezkariak egon.
- b) Bederatzi (9) batzarkide jokalarien ordezkari gisa
- c) Zortzi (8) batzarkide entrenatzaileen ordezkari gisa.
- d) Zortzi (8) batzarkide epaileen ordezkari gisa.

II. ATALA - BATZAR NAGUSIKO KIDEAK HAUTATZEA

25. artikulua.

Klub eta taldeen estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak klub eta taldeen ordezkariak hautatuko dituzte beren kideen artean, baina baldintza hauek beteta: Batetik, EAEko Kirol Erakundearen Erroldan izen emanda egotea eta lurralde federazioko kide izatea; bestetik, hauteskundeak egiten diren urtean eta aurrekoan gutxienez 7 lizentzia izatea indarrean.

26. artikulua.

Kirolarien estamentuak Batzar Nagusian edukiko dituen ordezkariak kirolariak hautatuko dituzte hauteskundeak egiten diren denboraldian nahiz aurrekoan lizentzia indarrean izan duten hemezortzi urtetik gorako kirolarien artean. Ordezkaritza hori hamasei urtetik gora izanik lehen aipatu baldintzak betetzen dituzten kirolariak hautatuko dute.



27. artikulua.

Teknikari eta epaileen estamentuek Batzar Nagusian edukiko dituzten ordezkariak hauteskundeak egiten diren urtean nahiz aurreko urtean lizentzia –lizentzia edozein mailatakoa izanik ere– indarrean izan dutenek hautatuko dituzte beren artetik. Bai hautesleek bai hautatuek 18 urte eduki beharko dituzte.

III. ATALA - BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

28. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko batzarrak egingo ditu.
2. Urtean gutxienez ohiko batzar bat egingo da, urteko lehenengo sei hilabeteen barruan, honakoak aztertu eta onartzeko:
 - a) Kontuen egoera eta aurrekontua onartu.
 - b) Jardun plana onartu.
 - c) Lehiaketen egutegi ofiziala onartu.
3. Batzar Nagusia ezohiko batzarrean bilduko da ondorengo gai hauetarako:
 - a) Bozketa libre, zuzeneko, berdina eta isilpekoaren bidez F.G.F.-G.F.F.ren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea hautatu.
 - b) Federazioaren Estatutuak eta araudiak onartu edo aldatu.
 - c) Beste kirol erakunde, federazio eta herri erakundeekin egindako hitzarmenak eta akordioak, Federazioaren kirol jardunari eragiten diotenak, onartu.
 - d) Ondasun higiezinak zergapetu edo besterendu, dirua maileguan hartu eta titulu ordezkatzailak, akzioak edo obligazioak jaulki.
 - e) Federazioaren alde egiten diren dohaintza, diru laguntza eta beste edozein ekintza eskuzabal onartu, baldintzaren bati edo zergaren bati loturik leudekeen kasuan.
 - f) Lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen aurka aurkezturiko zentsura mozioak onartu.
 - g) Federazioa desegin eta desagertu.



4. Egoerak hala eskatzen duenean, Batzarra modu telematikoan egin ahal izango da bideokonferentziaren edo antzeko sistemaren bidez, bertaratutakoen aintzatespena eta bozkatzeko sistema bermatuz, baita estatutu hauetan jasotzen diren gaietarako isilpeko bozketa ere.

29. artikulua.

1. Ohiko nahiz ezohiko batzar nagusirako deia egitea F.G.F.-G.F.F.-ren lehendakariari dagokio ofizioz, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko kideen %5ek hala eskatuta. Lehendakariak batzarrerako deia egiteko betebeharra beteko ez balu, Batzarreko kideen %5eko ordezkariak duen talde batek egin ahal izango lukete deia.
2. Lehendakariak gehienez 15 egun naturaleko epean egin beharko du batzarrerako deia, dagokion eskaera egiten denetik kontaktzen hasita.

30. artikulua.

Batzar Nagusirako deialdia lehendakariak egingo du, hamar egun aurretik gutxienez, eta batzarren gai zerrenda, lekua, eguna eta ordua jasoko ditu, baita ordu erdiren buruan izango den bigarren deialdia ere.

Deialdia Federazioaren iragarki taulan jarriko da, eta lurraldean hedapenik handienetako duen egunkarian argitaratu ahal izango da.

31. artikulua.

Batzarreko kideek ahalmena dute interesgarritzat jotzen dituzten gaiak gai zerrendan sar ditzan lehendakariari eskatzeko, betiere batzarreko kideen gutxienez %15ek proposatuta. Nolanahi ere, Batzar Nagusiko gai zerrendan sartzeko eskaera zortzi egun natural lehenago egin beharko da - gutxienez.

**32. artikulua.**

1. Batzar Nagusiak baliozko eraketa izango du lehen deialdian, baldin eta kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira. Bigarren deialdian, ordea, berdin dio zenbat kide agertzen diren.
2. Botoak eskuordetzerik ez da onartuko Batzar Nagusiaren barruan.

33. artikulua.

1. Estatutu hauetako 28.3.a) artikuluan aipatzen diren erabakiak hartzeko botoa isilpean eta idatziz emango da beti, baina Batzar Nagusian egiten diren gainerako bozketak isilpean, ahoz edo eskua jasota egin ahal izango dira, betiere lehendakariak erabakitzen duenaren arabera.
2. Batzar Nagusiko kide bakoitzak boto bat izango du.
3. Batzar Nagusiaren akordioak bertaraturiko kideen gehiengo sinplez hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero, lehendakariaren botoak ebatziko du.
4. Salbuespen modura, estatutuak onartzeko edo aldatzeko eta estatutu hauen 28. artikulua 3. atalak d) eta g) puntuetan jasotzen duena erabakitzeko, bertaratzen diren kideen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa.

34. artikulua.

1. Batzar Nagusia hautatzen denetik lau urte igaro baino lehen, federazioaren administrazio organoak Hauteskunde Batzordearen bilera deituko du hauteskunde prozesua abian jartze aldera.
2. Hori posible ez bada, Batzar Nagusiko kideen % 5ek Hauteskunde Batzordea deitu ahal izango dute.



III. KAPITULUA – LEHENDAKARIA

35. artikulua.

1. Lehendakaria da Federazioaren ordezkari legala, eta Batzar Nagusiak, edo hala badagokio Zuzendaritza Batzordeak, erabakitakoak betearaziko ditu, eta bozketetan berdinketarik egonez gero, kalitate botoarekin erabakiko du. Estatutu hauetan zehaztutakoez gain, Batzar Nagusiari edo Zuzendaritza Batzordeari berariaz esleitu ez zaizkion eginkizunak dagozkio, oro har.
2. Lehendakaria lau urtetik behin hautatuko du Batzar Nagusiak bozketa libre, zuzeneko, berdina eta isilpekoaren bidez, hartarako legez deitaturako batzar batean. Hautagai-zerrenda bakarra egonez gero, ez da bozketarik izango.
3. Federazioko lehendakaria izango da aukeratua izan den hautagai-zerrendaren burua.
4. Lehendakaria berriro hautatua izan daiteke, gehienez 3 agintaldi jarraian egin ditzakelarik. Hiru agintaldiak bete ondoren, lehendakariak ezin izango du kargu hori bete azken agintaldia amaitu eta zortzi urte igaro arte.
5. Lehendakari den bitartean, lehendakariak ezingo du izaera bereko beste kargurik izan modalitate bereko beste federazio batean, eta bere kargua bateraezina da jokalaria, epaile, edo teknikari jardunarekin; lizentzia edukiz gero, indarrrik gabe egongo da agintaldiak irauten duen bitartean.
6. Edozein arrazoi dela medio agintaldiaren amaierara iristen ez bada, haren ordezkioak agintaldia amaitu arteko denboran jardungo du.
7. Kanpoan delako, gaixorik dagoelako edo beste edozein kausarengatik ezin baditu behin-behinekoz bere egitekoa bete, lehendakariordeak ordezkaturiko du.

36. artikulua.

Organo betearazlea eta ordezkaria den aldetik dagozkion egitekoez gainera, lehendakariaren egitekoak hauek dira: Batzar Nagusiak deitu eta bilkuren buru izan

- a) Batzar Nagusiak hartutako erabakiak bete eta betearazi beharko ditu.
- b) Ohiko nahiz Aparteko Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betetzearen alde egitea, eta betearaztea bultzatzea.



- c) Zuzendaritza Batzordearen bilerak deitu, aztergaien zerrenda prestatu eta bilkuren buru izan.
- d) Berdinketa kasuetan kalitatezko botoa erabili, Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bilkuretan izaten diren bozketetan.
- e) Federazioaren ordainketak agindu.
- f) Ahalmen bereziak edo orokorrak eman legelari, prokuradore edo beste edozein pertsona ordezkari, federazioaren legezko ordezkari eraman dezan, epaiketetan edo handik kanpo.
- g) Batzar Nagusiak ematen dizkion eta Estatutu hauetatik datozkion zeregin guztiak.

37. artikulua.

1. Lehendakariak ondorengo arrazoi hauetakoren batengatik utziko du bere kargua:
 - a) Dimisioa edo heriotza edo ausentzia aitortu.
 - b) Zentsura-mozioa onartu.
 - c) Ezintasuna edo gaitasungabetzea.
 - d) Hautatua izan den agintaldia amaitu
 - e) Estatutu hauetan jasotako bateraezin edo hautaezin bihurtzen duen kausaren bat izan.
 - f) Zuzendaritza Batzordeak kargua uzteko 45. artikuluan a) eta c) ataletan adierazitako edozein zergati.
2. Lehendakariak a), c) eta e) ataletan adierazten diren arrazoietakoren bat dela medio kargua uzten badu, lehendakariordeak ordezkatzeko du agintaldiaren amaierara arte. Hori ezinezkoa izango balitz, Zuzendaritza Batzordeko kideek, euren artean, hautatuko dute lehendakari berria gehiengo osoz, baina hurrengo Batzar Nagusiak berretsi egin beharko du.
3. Federazioaren Batzar Nagusiak lehendakariari kargu hartu ahal izango dio batzarkideen gehiengo sinpleak babestutako zentsura mozioaren bidez, betiere ezohiko batzarrean batzarkideen erdiak gehi bat elkartzen badira. Zentsura mozioak lehendakaria ordezkatzeko beste pertsona bat proposatu beharko du, eta haren agintaldiak kargutik kendu den lehendakariaren agintaldia amaitu arte iraungo du.

**38. artikulua.**

Lehendakariari ordaindu ahal izango zaio Federazioari eskaintzen dion dedikazioagatik, moderazio- eta gardentasun-irizpideen arabera. Ordainsari horren baldintzak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu, eta bereizita eta banakatuta jasoko dira urteko aurrekontuetan eta kontuetan. Ordainsaria agintaldia amaitzean amaituko da gehienez, eta ez du inolako kalte-ordain ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

IV. KAPITULUA - ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA BATZORDE BETEARAZLEA**39. artikulua.**

Zuzendaritza Batzordea Federazioko administrazio organoa da eta Federazioko gaien administrazio eta ekonomi kudeaketaren eginkizunak betetzen ditu. Hain zuzen ere, Batzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera bete behar ditu eginkizun horiek.

40. artikulua.

1. Zuzendaritza Batzordeak kide-kopuru bakoitia izango du.
2. Batzar Nagusiko kide ez diren Zuzendaritza Batzordeko kideek batzar nagusietan hitza izango dute baina botorik ez.
3. Zuzendaritzako kide izatea bateraezina da federazioaren aholkulari profesional lanarekin; era berean, ezingo du zerbitzu profesionalik eman lan, gizarte edo merkataritza harremanen bidez.
4. Bateraezina izango da halaber jokalaria, epaile, edo teknikari jardunarekin; lizentzia edukiz gero, indarrrik gabe egongo da agintaldiak irauten duen bitartean.
5. Zuzendaritza Batzordeak gutxienez lehendakariorde bat edukiko du, eta lehendakariaren lekua hartuko du hura ez dagoenean edo Estatutu hauen 35.7 artikuluan jasotako zergatiren bat dela medio kargua uzten duenean.
6. Areto Futboleko Lurralde Batzordearen lehendakaria, edo hark izendatzen duen legezko ordezkaria, Zuzendaritza Batzordeko kide izango da.



41. artikulua.

1. Zuzendaritza batzordeko kideak lau urtez behin hautatuko dira, udako olinpiar jokoak izaten diren urteetan, behin Batzar Nagusia berritzen denean, hango kideek emandako botoen gehiengoz, bozketa libre, zuzeneko, berdin eta isilpekoaren bidez, hauteskunde prozedura betez.
2. Zuzendaritza batzordeko kideak berriro hautatuak izan daitezke, bertan izandako kargu guztiak batuz gehienez 3 agintaldi bete arte.
3. Hiru agintaldiak bete ondoren, Zuzendaritza Batzordeko kideek ezin izango dute kargu hori bete azken agintaldia amaitu eta zortzi urte igaro arte. Era berean, ezingo dira izendatu Zuzendaritza Batzordearen aholkulari edo organo horrekin zerikusia duen antzeko kargudun.

42. artikulua.

1. Zuzendaritza Batzordea gutxienez hiru hilean behin bilduko da.
2. Batzar nagusirako deia egitea Federazioko lehendakariari dagokio, edo lehendakariarik ezean Zuzendaritza Batzordeko kideen %25ari.
3. Deialdiarekin batera aztertuko diren gaien zerrenda ere bidali beharko da.
4. Zuzendaritza Batzordeko kideei gutxienez bi egun lehenago jakinaraziko zaie, behar bezala justifikaturiko larrialdi kasuetan izan ezik.
5. Hala eta guztiz ere, bilera baliotasunez eratu dela ulertuko da, nahiz eta alde zuzenetik dei egin ez, baldin eta kide guztiak agertzen badira eta denek aho batez hala erabakitzen badute.
6. Bertaraturiko kideen gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak, eta bozketetan berdinketarik egonez gero, kalitate botoak izango du erabakimena. Erabaki horien aurka ezingo da errekurtsorik jarri federazioko justizia organoen aurrean.
7. Zuzendaritza Batzordeko kideek berariaz hala onesten dutenean, posta elektronikoz, faxez, bideokonferentziaz edo antzeko bide teknikoak erabili hartu ahal izango dira erabakiak. Kasu horretan, aktarekin batera faxaren, posta elektronikoen eta bestelako euskarrien zurigariak gorde beharko dira.

**43. artikulua.**

1. Zuzendaritza Batzordea baliotasunez eratuko da lehen deialdian kideen erdiak eta bat gehiago agertzen badira, eta bigarren deialdian gutxienez kideen %25 agertzen badira, baina Federazioko lehendakaria edo lehendakariordea beti.
2. Federazioko lehendakaria, edo hura ez badago, lehendakariordea, mahaiburu egongo da Zuzendaritza Batzordeko bileretan, eta berak zuzendu eta koordinatuko du Batzordearen jarduna.

44. artikulua.

1. Zuzendaritza Batzordearen Batzorde Betearazlea premiazkoa denean bildu ahal izango da, eta, kasu horietan, batzordeari dagozkion eginkizunak eta eskumenak bere gain hartuko ditu, eta bere erabakien berri eman beharko dio batzordeari, berretsi edo ezeztatu ditzan, haien izaera betearazleari kalterik egin gabe.
2. Honako hauek osatzen dute: F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak, diruzainak eta lehendakariak izendatutako Zuzendaritza Batzordeko 4-6 kidek.
3. Batzorde Betearazlea lehendakariak deitzen duenean bilduko da, eta baliozko eran eratuta geratuko da kideen erdiak baino bat gehiago biltzen badira.
4. Idazkaritza Nagusiak bilkuren akta egingo du eta bileretara joango da, iritzia emateko eskubidea izango du, baina ez du bozkatuko.

45. artikulua.

1. Zuzendaritza Batzordeak, lehendakaria barne, agintaldia utziko du arrazoi hauetakoren bat baldin badago:
 - a) Kideen erdiak baino gehiagok dimititzea edo hiltzea.
 - b) Zentsura-mozioa onestea
 - c) Kideen erdiak baino gehiagoren gaitasungabetzea edo ezintasuna.
 - d) Agintaldia amaitzea.



2. Zuzendaritza Batzordeko kideek aurreko paragrafoko a), c) eta d) ataletan jasotako arrazoiengatik utziko dute kargua.
3. Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok, lehendakaria izan ezik, kargua uzten badute, gainerako kideek ordezkioak hautatu ahal izango dituzte gehiengo osoz, baina hurrengo Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu.

46. artikulua.

1. Batzar Nagusiak lehendakariaren edo Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna eska dezake zentsura mozio baten bitartez, baina mozio hori Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoak babestu beharko du, berariaz deitutako batzarraldi batean.
2. Zentsura mozioa onartzeak berarekin ekarriko du Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren karguak uztea, Federazioko lehendakariak barne.

47. artikulua.

1. Zentsura mozioa idatziz aurkeztuko da lehendakariaren edo Zuzendaritza Batzordearen aurrean, proposamena egiten duen kideetako bakoitzak izenpetuta, eta harekin batera aurkeztuko da NAren kopia; gutxienez batzarreko kideen %25aren babesa izango du, eta lehendakari nahiz Zuzendaritza Batzorde berria hautatzeko proposamena ere eduki beharko du.
2. Lehendakariak jakinarazpena jasotzen duenean, ezohiko batzar nagusia deitu beharko du. Batzarrean gai hori izango da aztergai bakarria.
3. Eskaria egiten denetik batzarra egin bitartean ez da hilabete baino gehiago igaroko.
4. Batzarra hasten denean, zentsura-mozioa aurkeztu dutenen ordezkariak izango du hitza, eta hark azalduko ditu mozioaren zergatiak. Lehendakariak erantzungo dio eta bozketa egingo da.
5. Batzar Nagusira etortzen diren kideen gehiengo osoak onartu beharko du zentsura-mozioa
6. Zentsura mozioa onartzeak berarekin ekarriko du lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren karguak uztea.



48. artikulua.

Lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeak agintaldia amaitu delako kargua uzten dutenean, jardunean jarraituko dute, eta lehendakariak Hauteskunde Batzordea deituko du, hilabeteko epean, hauteskunde prozesua abaian jartze aldera.

V. KAPITULUA - BARNE ERREGIMENeko ORGANoAK

I. ATALA - IDAZKARI NAGUSIA

49. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko du idazkari nagusia, haren menpe egongo da, bere ardura izango da administrazio antolakuntza, eta egiteko hauek izango ditu:
 - a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak izaten dituzten bileretako akta jasoko du, organo horietako idazkaria izango da, bai eta sor litezkeen batzordeetako ere.
 - b) Ziurtagiriak dagozkienei ematea.
 - c) Federazioaren dokumentazioa gordetzea eta zaintzea.
 - d) Lehendakariari eta Zuzendaritza Batzordeari informazioa eman, haiek eskatzen diotenean.
 - e) Federazioaren programazioan eta hedapenean modu aktiboan laguntzea.
 - f) Izapide gaiak konpontzea.
 - g) F.G.F.-G.F.F.-ko langileen buruzagitza lana egin.
 - h) Federazioko organoek erabakitakoak zehatz-mehatz betetzen direla zaindu.
 - i) Federazioaren aurrekontua osatzen duten partiden jarraipena eta aurrekontuaren betearazpena egitea
 - j) Jakinarazpenak izenpetu.
 - k) Lehendakariak agintzen dizkion eginkizunak betetzea.



2. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak dauka ahalmena idazkari nagusia izendatzeko; izendatuko ez balu, lehendakariaren ardurapean geratuko lirateke idazkariaren egitekoak, eta egoki irizitako pertsoneri eskuordetu ahal izango lizkieke.

50. artikulua.

a) atalean aipatzen diren aktetan ondokoak jaso behar dira: Parte hartu dutenen izen-abizenak, esku-hartze laburtuak, eta egoki irizitako gainerako gorabehera guztiak, bozketa nola egin den, aldeko botoak, aurkakoak, boro partikularrak, abstentzioak eta erabakiak.

II. ATALA – DIRUZAINA

51. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeak hautatuko du bere kideen artean F.G.F.-G.F.F.-ren diruzaina, eta - gutxienez ondorengo funtzioak izango ditu bere gain:

- a) Ekonomi alorreko kontu eta eragiketak zuzentzea eta aurrekontuaren jarraipenaz arduratzea.
- b) Federazioaren kontabilitate liburuak zaintzea.
- c) Beharrezko kontabilitate agiri guztiak prestatzea, batez ere, urteko aurrekontuen zirriborroa eta urtealdi bakoitzaren balantzea eta emaitzen kontua, ondoren Batzar Nagusiak onar dezan.
- d) Kontu-ikuskaritzako lanak koordinatzea.



III. ATALA - ZUZENDARI TEKNIKOAK-KIROL ZUZENDARIA

52. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du F.G.F.-G.F.F.-ren zuzendari teknikoak-kirol zuzendaria, federazioaren zuzendaritza teknikoak eta kirol zuzendaritza izango ditu bere gain, eta ondoko zereginak bereziki:

- a) Zein hautatzaile izendatu edo kargutik zein kendu proposatu beharko dio Zuzendaritza Batzordeari.
- b) Selektzioen kirol jarduna planifikatu parte hartuko duen lehiaketan arabera.
- c) Parte hartuko duen lehiaketak aintzat harturik, selektzioentzako kontzentrazio egitasmoak, bidaia planak eta abar prestatu nahiz proposatu Zuzendaritza Batzordeari, egoki ikusten denean.
- d) Euskadiko Futbol Federazioaren Zuzendaritza Tekniko eta Kirol Zuzendaritzarekin lankidetzan aritu.
- e) Kirol proiektuak, egiturak, lehiaketak hobetzeko proposamenak eta abar prestatu eta aurkeztu, futbol diziplina desberdinen sustapena indartze aldera.

VI. KAPITULUA - ORGANO TEKNIKOAK

I. ATALA - ENTRENATZAILEEN LURRALDE BATZORDEA

53. artikulua.

1. Entrenatzaileen Lurralde Batzordeak entrenatzaileen kolektiboaren funtzionamenduari erantzuten dio zuzenean, eta batzorde honi dagokio, F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariaren aginduetara, eurei dagozkien gobernu, ordezkaritza eta administrazio zereginak.
2. Batzordeari dagozkion gaietan batzordeak berak egiten dituen proposamenak F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariari egingo zaizkio, hark onar ditzan behin betiko.
3. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko du Entrenatzaileen Lurralde Batzordeko lehendakaria, eta osaera, funtzionamendu araudia eta eskumenak arautu egin beharko dira.



II. ATALA - EPAILEEN LURRALDE BATZORDEA

54. artikulua.

1. Epailen Lurralde Batzordeak epailen kolektiboaren funtzionamenduari erantzuten dio zuzenean, eta batzorde honi dagokio, F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariaren aginduetara, eurei dagozkien gobernu, ordezkaritza eta administrazio zereginak.
2. Epailen Lurralde Batzordearen ardura izango da Federazioak antolatzen dituen lehiaketetan epaile-zereginak zuzentzea eta antolatzea, bai eta epaile berriak erakartzea eta prestatzea ere.
3. Batzordeari dagozkion gaietan batzordeak berak egiten dituen proposamenak F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariari egingo zaizkio, hark onar ditzan behin betiko.
4. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko du Epailen Lurralde Batzordeko lehendakaria, eta osaera, eta funtzionamendu araudia arautu egin beharko dira.
5. Epailen Lurralde Batzordea diziplina ahalmenak erabiltzen ditu, baina epailen jardunaren alderdi teknikoari dagokionez soilik.

III. ATALA - ENTRENATZAILEEN ESKOLA

55. artikulua.

1. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren azaroaren 28ko Aginduaren arabera, F.G.F.-G.F.F.-ren Entrenatzaile Eskola denez futboleko eta areto futboleko irakaskuntzak emateko baimena duen zentroa, hark ematen ditu futboleko eta areto futboleko Kirol Teknikari eta Goi Mailako Kirol Teknikari tituluak lortzeko irakaskuntzak, betiere indarrean dauden lege arauak betez.
2. F.G.F.-G.F.F.-ren Entrenatzaile Eskolak, pedagogi organoa den aldetik, behar diren prestakuntza ikastaroak antolatuko ditu eta arautu gabeko ikasketak egiteko –monitore ikastaroak eta abar– eskolak emango ditu.



IV. ATALA - FUTBOL AFIZIONATUKO LURRALDE BATZORDEA

56. artikulua.

1. Futbol Afizionatuko Lurralde Batzordea Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen menpe dagoen organo teknikoa da, eta bere egitekoa zera izango da: Afizionatu, jubenil, kadete, infantil, alebin eta emakumezkoen mailako futbola sustatzearen, antolatzearen eta gidatzearen gaineko aholkuak ematea Federazioari.
2. F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko du batzorde honen lehendakaria.

V. ATALA - EMAKUMEZKOEN FUTBOLEKO LURRALDE BATZORDEA

57. artikulua.

1. Emakumezkoen Futboleko Lurralde Batzordea Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen menpe dagoen organo teknikoa da, eta emakumezkoen kategorien futbola sustatzeaz, antolatzeaz eta zuzentzeaz arduratzen da.
2. Lehendakaria F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko du.

VII. KAPITULUA - KIROL JUSTIZIAKO ORGANOAK

I. ATALA - XEDAPEN OROKORRAK

58. artikulua.

Beren egitekoa Kirol Justizia aplikatzea duten organoak hauek dira:

- a) Diziplina Batzordea.
- b) Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.

**59. artikulua.**

Futbolaren diziplina-araubidea, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean aurreikusia, zehapen-zuzenbidearen printzipio orokorren, Kirol Diziplinaren Araudiaren urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuaren eta hura garatzeko gainerako erregelamendu-arauen arabera garatzen da.

60. artikulua.

Federazioak joko edo lehiaketa arauak eta kirol portaerari dagozkionak hausten direnean baino ez du izango diziplina ahalmena, aurreko artikuluan aipaturiko xedapenen arabera, eta haietan adierazita bezala.

II. ATALA - DIZIPLINA BATZORDEA**61. artikulua.**

1. Diziplina Batzordea Federazioko kide guztien gainean izango du erabakitze ahalmena, eta F.G.F.-G.F.F.-k antolaturiko jardueretan edo lehiaketetan gertatzen den edozein auzi edo gertaeren gainean erabakiko du.
2. Zuzenbidea lizentziadun diren gutxienez hiru kidek osatuko dute eta F.G.F.-G.F.F.-ko lehendakariak izendatuko ditu.
3. Diziplina Batzordeak gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta aurkatu egin ahal izango dira dagokion Euskal Federazioen Apelazio Batzordeen aurrean.

III. ATALA - JURISDIKZIO ETA ADISKIDETZE BATZORDEA**62. artikulua.**

1. Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordearen ardura izango da jakitea eta ebaztea federazioko kide diren pertsona fisiko edo juridikoen artean sorturiko auziak, nahiak edo erreklamazioak, eta diziplinarekin edo lehiarekin loturarik ez dutenak.
2. Diziplina Batzordea osatzen duten kideek eurek osatuko dute hau ere.
3. Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeak gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta aurka egin ahal izango da Euskadiko Kirol Justiziako Batzordearen aurrean.



VIII. KAPITULUA - ARETO FUTBOLEKO LURRALDE BATZORDEA

63. artikulua.

1. Areto Futboleko Lurralde Batzordea F.G.F.-G.F.F.-ren organoa da, areto futbola sustatzeaz, kudeatzeaz, antolatzeaz eta zuzentzeaz arduratzen dena.
2. Areto Futboleko Lurralde Batzordeko lehendakaria eta gainerako kideak kolektiboak berak hautatuko ditu araudiak ezarritako eran.
3. Batzordeak bere aurrekontua izango du, baina finantzak F.G.F.-G.F.F.-rentzat indarrean dagoen gainbegiratze- eta finantza-kontrolako araubidepean egongo dira.
4. Areto Futboleko kirol jarduerak eskumen hurrenkera espezifikoaren bidez zuzenduko dira.

IX. KAPITULUA - 7-8KO FUTBOLEKO LURRALDE BATZORDEA

64. artikulua.

1. 7-8ko Futboleko Lurralde Batzordea F.G.F.-G.F.F.-ren organoa da, 7-8ko futbola sustatzeaz, kudeatzeaz, antolatzeaz eta zuzentzeaz arduratzen dena.
2. 7-8ko Futboleko Lurralde Batzordearen lehendakaria F.G.F.-G.F.F.-ko kideak izendatuko du.
3. 7-8ko futboleko kirol jarduerak eskuduntza hurrenkera espezifikoaren bidez zuzenduko dira.

X. KAPITULUA - HONDARTZAKO FUTBOLEKO LURRALDE BATZORDEA

65. artikulua.

1. Hondartzako Futboleko Lurralde Batzordea F.G.F.-G.F.F.-ren organoa da, hondartzako futbola sustatzeaz, kudeatzeaz, antolatzeaz eta zuzentzeaz arduratzen dena.
2. Hondartzako Futboleko Lurralde Batzordearen lehendakaria F.G.F.-G.F.F.-ko kideak izendatuko du.



1. Futbole-y-a Hondartza Futbolaren barneko dizi-plina bezala barneraten da.
2. Hondartzako futboleko kirol jarduerak eskuduntza hurrenkera espezifikoa-ren bidez zuzenduko dira.

IV. TITULUA - FEDERAZIOKO KIDEAK ETA ESTAMENTUAK

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

66. artikulua.

Federazioaren lizentzia daukaten kirolari, teknikari eta epaileen estamentuek, eta federazioari atxikitako klub eta kirol elkarteek osatuko dute F.G.F.-G.F.F.

67. artikulua.

Federazioko estamentuetako kideek ondoko eskubideak izango dituzte, gutxienez:

- a) Estatutuok eta araudi aplikagarriak ezartzen duenaren arabera, gobernu eta administrazio organoetan ordezkaria izan eta baita haietan parte hartu ere.
- b) Federazioak antolatzen dituen jarduera guztietan parte hartu, betiere Federazioak ezartzen dituen arauen arabera.
- c) Federazioko gaien gainean eskatzen duten informazio guztia jaso eta beren iritzia eman, betiere kirol honen mesedetan.
- d) Federazio arauak bete daitezten eskatzeko, aginpidedun Federazio organoetara jo.
- e) Egoki irizitako kontsultak eta erreklamazioak aurkeztu, Federazioko arauen arabera.
- f) Federazioaren lizentziaren jabe dela adierazten duen agiria eduki.



68. artikulua.

Federazioaren Estamentuetako kideek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- a) Ezarritako kuotak ordaindu.
- b) Federazio organoek legez hartutako erabakiak bete.
- c) Federazioaren helburuen lorpenean aktiboki parte hartu.
- d) Bakoitzak daukan karguari dagozkion betebeharrak leialki bete.
- e) Euskadiko eta lurraldeko selekzioen deialdietara joan.

II. KAPITULUA – KIROLARIAK

69. artikulua.

1. Estatutu hauen ondorioetarako, kirolari izaera izango dute F.G.F.-G.F.F.-k kontrolaturiko eta araturiko edozein futbol modalitatetan aritzeko eta lehiatzeko lizentzia beren borondatez izenpetzen duten persona guztiek.
2. Batzar Nagusiak ahalmena izango du kategorietan edo mailetan sailkatzeko, betiere afizionatuak eta profesionalak bereizita.

70. artikulua.

Kirolari federatuen eskubideak honako hauek dira:

- a) Federazioaren lizentzia izenpetu.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoan, autonomi erkidegoan eta erkidegoz gaindi antolatzen diren lehiaketa eta kirol jardueretan parte hartu federazioaren ordezkari moduan.c) Medikua eta osasun laguntza jaso futboleko aritzeak eragindako kasuetan.
- c) Federazioa libreki utzi.
- d) Klubek adierazitakoak.

**71. artikulua.**

Kirolari federatuen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Bere klubak parte hartzen duen kirol lehiaketa edo jardueretan parte hartu.
- b) Federazioaren Estatutuek eta araudiek ezartzen dutena bete.
- c) F.G.F.-G.F.F.-k eta Euskadiko selekzioak deitutako proba eta deialdietan parte hartu.
- d) Dagozkion kuotak ordaindu.

III. KAPITULUA - TEKNIKARIAK ETA EPAILEAK**72. artikulua.**

Estatutu hauen ondorioetarako, teknikari izaera izango dute dagokien titulua eduki eta federazioko kide izanik, futboleko eta areto futboleko modalitate desberdinetako taldeak gidatzeko gaitasuna dutenak.

73. artikulua.

Estatutu hauen ondorioetarako, epaile izaera izango dute dagokien titulua eduki eta elkargoko kide egin diren epaile guztiak edo F.G.F.-G.F.F.-k epailatzat onartu dituenak, eta federazioaren baimena dutenak bere lurraldean antolaturiko lehiaketetan zeregin teknikoak eta epaile lanak egiteko, edo lurraldez gaindikoak izanik ere izendapena federazioari dagokion kasuetan epaile lanak egiteko.

IV. KAPITULUA - KLUBAK ETA KIROL ELKARTEAK**74. artikulua.**

Estatutu hauen ondorioetarako, klubak edo kirol elkarteak dira irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu guztiak, izaera juridikoa eta jarduteko gaitasuna dutenak, beren xedea futboleko jardutea dutenak eta normalean lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenak.

**75. artikulua.**

Kirol taldeak dira irabazi asmorik gabe eratzen direnak jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko, nahiz eta lehiaketa ofizialetan normalean ez parte hartu:

- a) Ikastetxe eta unibertsitateetan eratuak.
- b) Elkarte, fundazio, korporazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen atal moduan eratzen direnak, bertako kideek edo langileek jarduera fisikoa edo kirola egin dezaten.
- c) Hiru pertsonak edo gehiagok eratuak, jarduteko gaitasuna dutenak eta soilik kirol helburuak dauzkatena.

76. artikulua.

Eratzeari eta funtzionamenduari dagokionez, klubek eta kirol taldeek lege-arau hauek dituzte gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; Eusko Jaurlaritzaren -otsailaren 14ko 29/1989 Dekretua, haiek garatzen dituzten gainerako xedapenak, estatutu hauek eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

77. artikulua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko klubak eta kirol taldeak F.G.F.-G.F.F.-ri atxikitzen zaizkio kirola egiteko eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko. Atxikitzea urtero berriztagarria izango da.

78. artikulua.

Kluben eta kirol taldeen eskubideak hauek dira:

- a) F.G.F.-G.F.F.-k antolatzen dituen lehiaketa ofizialetan parte hartzea, betiere bertako kide izanda, bai eta goragoko faseetan parte hartzea ere, kirol merituei esker lortzen badute; eta lagunarteko partidak jokatzeko beste talde espainiar edo atzerritar batzuen kontra, bete behar diren baldintzak beteta.
- b) Federazio arauak eta haiek ezarritako obligazioak bete daitezten eskatzeko, aginpidedun Federazio organoetara jotzea.
- c) Egoki iriztitako kontsultak eta erreklamazioak aurkeztea, eta Federazioaren dokumentazioari buruzko informazioa jasotzea.

**79. artikulua.**

Kluben eta kirol taldeen betebeharrak hauek dira:

- a) Dagozkion kuotak eta federazio eskubideak garaiz ordaindu.
- b) Federazioak eskatzen dizkion jokalariai utzi federazioa ordezkatzeko duten partidetarako.
- c) Legez onartzen diren araudia eta arauak ontzat hartu, baita federazioaren organoen baliozko akordioak ere.

80. artikulua.

Salbuespen modura, aurrekari historikokoak, arrazoi ekonomikoak edo hurbiltasun geografikoa direla medio, Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatzen dituen lehiaketetan beste federazio - batzuetako kide diren taldeek edo klubek parte hartu ahal izango dute.

V. TITULUA - HAUTESKUNDE ARAUDIA**81. artikulua.**

F.G.F.-G.F.F.-ren hauteskunde-araubidea Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, horren garapeneko xedapenetan nahiz estatutu hauetan eta Federazioko Batzar Nagusiak onetsi beharko duen hauteskunde arautegian xedatutakoaren arabera izango da.

82. artikulua.

1. Hiru kidek osatuko duten eta hauteskunde prozesua bultzatu zein bere garapen egokia zainduko duen Hauteskunde Batzordea egongo da Federazioan.
2. Hauteskunde Batzordearen funtzioen jarduerak lau urteko iraupena izango du; kargutik kendu eta aipatu epea agortu aurretik Hauteskunde Batzorde berri bat izendatu ahal izango du Batzar Nagusiak.
3. Kargua uztera doan Hauteskunde Batzordeak jardunean jarraituko du Hauteskunde - Batzorde berria izendatu arte.



83. artikulua.

1. Hauteskunde Batzordeko kideak eta ordezkokoak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu hauteskunde prozesuaren aurretik egingo den azken ohiko batzarrean, edo inor aurkezten ez bada, zozketa egingo du hautagai izango ez diren pertsonen artean.
2. Hautagai aurkeztatutakoak, inondik inola ere, ezingo dira Hauteskunde Batzordeko kide izan. Izendatutako Hauteskunde Batzordekoren bat hautagai suertatuko balitz, horrek bere postua utzi eta horretarako aukeraturiko ordezkokoak, ordezkatu beharko luke.

84. artikulua.

1. Hauteskunde Batzordeak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:
 - a) Hauteskunde errolda eta hauteskunde egutegia onartu.
 - b) Aurkezten diren hautagaiak aldarrikatu eta argitaratu.
 - c) Hauteskunde-mahaia aukeratu.
 - d) Hautagaiak aldarrikatu.
 - e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak eta eskaerak ebatzi, bai eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekurtsioak ere.
 - f) Hauteskundeak egiteari eta hauteskundeko emaitzei zuzenean eragiten dien edozein gai.
2. Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka egin ahal izango da Kirol Justiziako Euskadiko Batzordearen aurrean.
3. Hauteskunde Batzordeak bere lana egiteko Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordearen eta Federazioaren gainerako organoen laguntza izango du, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundian kirol eskuduntza duen organoarena ere.

85. artikulua.

Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez direnen artean zozketa eginda, Hauteskunde Mahaia izendatuko du. Mahaia hiru pertsonen osatuko da, eta ordezkoko veste horrenbeste kide egongo dira. Lehendakaria adinez nagusia izango da eta idazkaria gazteena.

**86. artikulua.**

1. Hauteskunde Mahaiak honako funtzio hauek izango ditu:
 - a) Bozketa behar bezala egin dadin bermatu.
 - b) Bozkatzen duten pertsonen identitatea eta hautesle izaera egiaztatu.
 - c) Ematen diren botoak baliozkoak diren erabaki.
 - d) Behin bozkatutakoan, botoak zenbatu.
 - e) Bozketari dagokion beste edozein gairi buruz erabaki.
2. Hauteskunde Mahaiko erabakien aurka egin ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean.

87. artikulua.

Hauteskunde prozesuari dagozkion gainerako gaiak unean uneko hauteskunde prozesuetako Hauteskunde Araudien arabera arautuko dira; Araudi horrek federazioaren kirol estamentuetako kide guztiak jakinaren gainean egotea eta federatuta egoteagatik dagozkien eskubideak edukitzea bermatu beharko ditu.

VI. TITULUA - EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA**I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK****88. artikulua.**

1. F.G.F.-G.F.F.-k berezko aurrekontu eta ondare erregimena ditu
2. F.G.F.-G.F.F.-k egun dituen eta etorkizunean izango dituen ondasun guztiekin erantzungo die bere obligazioei.



II. KAPITULUA - BALIABIDE EKONOMIKOAK

89. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren ondarea osatzen dute titular gisa dituen ondasun guztiek.
2. F.G.F.-G.F.F.-ren ekonomi baliabideak kontzeptu hauek izango ditu, besteak beste:
 - a) Federatuen kuotak.
 - b) Erakunde publikoek eman ahal dizkieten diru laguntzak.
 - c) Dohaintzak, herentziak, legatuak eta sariak.
 - d) Antolatzen dituen kirol jardueretan eta lehiaketetan ateratako mozkinak.
 - e) Industria, merkataritza, profesional edo buruturiko zerbitzuen jardueretatik eratorritako irabaziak.
 - f) Euren ondarearen fruituak eta ondarea besterentzetik edo zergapetzetik ateratzen dena, 91. artikuluan ezarritako baldintzetan.
 - g) Lortzen dituzten maileguetatik edo kredituetatik ateratako mozkinak.
 - h) Bere jardueran jaso dezakeen beste edozer.

90. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-k bere xedeak gauzatzeko dauzkan diru kopuruak Kreditu, Aurrezki edo Banku erakunderen batean egon beharko dira Federazioaren izenean.
2. Horiek erabiltzeko lehendakariaren edo diruzainaren sinadura eskatuko da.

III. KAPITULUA - JARDUERA EKONOMIKOA, AURREKONTUA, URTEKO KONTUAK ETA KONTU-IKUSKARITZA

91. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-K urtero onartuko du ekitaldiko aurrekontua, bai eta aurreko ekitaldiko likidazioa eta balantzea ere.
2. Administrazio organoaren ardura da urtero aurrekontuen proiektua gauzatzea, eta Batzar Nagusiarena hura onartzea.



3. Aurrekontuan Federazioak gehienez onar ditzakeen betebeharrak adierazi beharko dira, zifraz horniturik, era bateratuan eta sistematikok), bai eta dagokion ekitaldian likidatzea aurreikusten diren eskubideak ere.
4. Aurrekontu bakarra egongo da, eta Federazioko gastu eta diru sarrera guztiak barne hartuko ditu, organo osagarrienak eta horien tresna erakundeak barne. Kudeaketako edo antolamenduko beharrek hala eskatzen dutenetan, kontabilitateko azpierakundeak sortu ahal izango dira, sistema zentrolean behar bezala integratuta egongo direnak.
5. Aurrekontua orekatua izango da, eta inolaz ere ez da onartuko defizita sortzen duen aurrekonturik, aldez aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eskuratu gabe.
6. Behin Batzar Nagusiaren onarpena lortutakoan, ekitaldiko aurrekontua eta likidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian kirol arloaz arduratzen den organoari helaraziko zaizkio.
7. F.G.F.-G.F.F.-ren Zuzendaritza Batzordeak aurrekontua aldatu ahal izango du, betiere Estatutuetan ezarritakoaren arabera.
8. Guztizko aurrekontuaren %20 gainditzen duten programen arteko kreditu transferentziatarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena behar izango da.

92. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren aurrekontua, Kontabilitate Plan Orokorrak ezartzen dituen egokitze-arauen arabera izango da. Hor arautzen ez bada, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Kontabilitate eta Auditoria Institutuak kirol federazioentzat garatzen duen Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako arauak erabiliko dira.
2. Kirolari profesionalei eta afizionatuei dagozkien sarrerak eta gastuak bereizi egin beharko dira aurrekontuetan.
3. Aurrekontuak likidatu ondoren soberakinik geratzen bada, sarreratzat jasoko da hurrengo aurrekontuan.
4. Onartzen diren ordainketak diruzainak gauzatuko ditu.

**93. artikulua.**

1. Urte ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n bukatuko da.
2. F.G.F.-G.F.F.-k Estatutu hauen 94.1.c) artikuluan ezartzen diren kontabilitate liburuak eramango ditu, bai eta hura osatzeko egoki ikusten direnak eta indarrean dagoen legeriaren arabera beharrezko direnak ere.
3. Ekitaldia itxi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan federazioaren administrazio organoak - Batzar Nagusiari aurkeztu beharko dizkio urteko kontuak: Balantzea, galeren eta irabazien sarrera eta memoria ekonomikoa.
4. Zuzendaritza Batzordeak aurkezten dituen kontuan lehendakariak eta diruzainak izenpetu beharko dituzte.

94. artikulua.

1. Federazioko diru sarrera guztiak –kirol jardueretan lortutako mozkinak eta sariak nahiz industria, merkataritza, zerbitzu izaerako edo izaera profesionaleko jardueretatik atera daitezkeenak– sozietate xedea garatzeko erabiliko dira osorik.
2. Mozkinak ezin izango dira inolaz ere Federazioko kideen artean banatu.

95. artikulua.

1. Federazioak ondasun higiezinak zergapetu edo besterendu egin ditzake, dirua har dezake maileguan eta zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailak jaulki ditzake, betiere ondoko baldintzetan:
 - a. Ekintza horiek ez dute arriskuan jarriko modu atzeraezinean erakundea edo haren sozietate xedea; eskumena duen profesional baten txostenaren bidez justifikatu ahal izango da hori.
 - b. Ekintza horiek Batzar Nagusian dauden kideen bi herenen babesa izan beharko dute.
2. Federazioaren ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko, zati bat edo dena administrazio publikoak ordaindu badu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da Batzar Nagusian aurkeztu aurretik.



3. Era berean, dirua maileguan hartzeko edo aurrekontua baino %25 handiagoko zor tituluak jaulkitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da Batzar Nagusian aurkeztu aurretik.

96. artikulua.

1. Zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailleak izendunak izango dira.
2. 94.1.d) artikuluan aurreikusten den liburuan inskribatuko dira tituluak eta hurrengo transmisioak.
3. Titulu guztietan agertuko da balio nominala, jaulkitze data, eta interesa nahiz amortizazio epea, hala badagokio.
4. Inola ere ezingo da titulu liberaturik jaulkitzea baimendu.
5. Zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailleak edo jaulkitze baldintzak Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskatuko ditu Batzar Nagusian onartzeko aurkeztu aurretik. Jaulkitze baldintzak ikuskatu eta indarrean dagoen legeria urratzen dela ikusiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak itzuli egingo dio federazioari jaulkitze proposamena. Behin urraketa zuzentzen denean, berriro aurkeztu beharko da onartua izan dadin.
6. Zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailleak federazioko kideek bakarrik izenpetu ahal izango dituzte, eta haiek edukitzeak ez du eskubide berezirik emango, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen interesak jasotzea izan ezik.
7. Zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailleak Batzar Nagusiak ezarritako eran izango dira igorgarriak.

97. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren urteko kontuak kanpoko empresa auditore batek ikuskatu beharko ditu.
2. Kontu-ikuskaritza enpresa prozedura ireki baten bidez kontratatuko da agintaldi bakoitzerako, eta Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herenek onartu beharko dute.



VII. TITULUA - DOKUMENTU ARAUBIDEA

I. KAPITULUA - FEDERAZIOAREN LIBURUAK

98. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren agiri araubidea osatzen duten liburuak honako hauek izango dira gutxienez:
 - a) Federazioko estamentuen liburua, bost ataletan banatuta: Kide diren klubak eta kirol taldeak, kirolariak, teknikariak, epaileak era beste kolektibo batzuk. Atal horiek eguneratuta egongo dira, eta Federazioan sartu diren data nahiz Federaziotik atera diren data azalduko dira.
 - b) Federazioko akten liburua; gobernu nahiz administrazio organoek eta Batzar Nagusiak, hartzen dituzten erabakiak azalduko dira.
 - c) Kontabilitate liburu, non agertuko diren federazioaren sarrerak eta gastuak.
 - d) Hala badagokio, zor tituluen edo ondare parte alikuotaren erregistro liburua
2. Liburu hauek egunean eramango dira beste xedapen batzuetatik datozen obligazioak bete-tzearen kaltetan izan gabe.
3. Eskumena duen organoak legeztatuko ditu liburu horiek, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak aurreikusitakoaren arabera, bideratuko dira liburu horiek.

II. KAPITULUA - FEDERAZIOAREN ARAUDIAK

99. artikulua.

F.G.F.-G.F.F.-k ondorengo hauek arautu beharko ditu gutxienez:

- a) Lehiaketa ofizialak antolatzeko eta garatzeko araubidea.
- b) Diziplina araubidea.
- c) Auziak judizioz kanpo ebazteko araubidea.
- d) Hauteskunde araubidea.
- e) Barne araubidea eta kudeaketa zuzenaren araubidea.



100. artikulua.

1. Federazioaren araudiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzari onar ditzan aurkeztuko zaizkio, hirurogei (60) egun naturaleko epean, Federazioko Batzar Nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.
2. Aipaturiko araudiak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira, eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak eskatzen duen euskarri informatikoan.
3. Eskumena duen organoak bi hilabeteko epea izango du araudiak onartzeko, eskaera erregistroan sartzen denetik kontaktzen hasita.
4. Federazioaren araudiak eta haien aldaketak, behin administrazioaren onespena jasotzen dutenean, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuko dira.
5. Behin inskribatzen direnean, araudi horiek indarrean egongo dira bai federatuentzat bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat. Inolako eraginik gabeko proiektuak izango dira, harik eta administrazioak onartu arte.

VIII. TITULUA - DIZIPLINA ARAUBIDEA

101. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren diziplina-araubideak lege-arau hauek ditu gidari: Euskadiko kirolaren 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen X. Titulua, Kirol Diziplina arautzen duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, Estatutu hauek eta dagokion euskal federazioaren diziplina araudiak.
2. F.G.F.-G.F.F.-k diziplina ahalmena izango du bere egitura juridikoa osatzen duten pertsona guztiengan, klubengan eta klubetako kirolari, teknikari eta zuzendariengan, epaileengan, eta oro har, F.G.F.-G.F.F.-ri atxikita egon eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten pertsona guztiengan.
3. F.G.F.-G.F.F.-k ez du diziplina ahalmenik izango beste lurralde batzuetako federazioetako kideengan, nahiz eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan jardun. Nolanahi ere, pertsona horiei lehiaketa antolatzen duen federazioaren joko edo lehiaketa arauak aplikatuko zaizkie.



IX. TITULUA - GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEA

102. artikulua.

Federazioaren eta federatu edo kideen artean, nahiz horien artean, sor daitezkeen auziak edo diferentziak Zuzenbide Arbitrajearen bidez ebatziko dira, indarrean dagoen legerian, Estatutu hauetan eta garapen-araudian ezarritako terminoetan.

103. artikulua.

Arbitraje bidez ebatzi daitezkeen auzi edo diferentziak edo, oro har, judizioz kanpoko ebatzi daitezkeen gatazkak, Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegiaren esku jarriko dira.

104. artikulua.

Administrazioak Federazioari eskuordetutako funtzio publikoen gauzatzearekin zerikusia duten gaiak eta legeriak berariaz eta legez arbitrajetik kanpo uzten dituen horiek salbu, beste guztiak bide horretatik ebatziko dira.

X. TITULUA - DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

105. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F. desegin egingo da:
 - a) Ezohiko Batzar Nagusiak erabakitzen badu, Estatutu hauetan ezarritako baldintzen eta gehiengoan arabera.
 - b) Epailaren erabakiz.
2. Batzar Nagusiaren erabakiaren aurretik ez da ondoko puntuan jasotzen diren kausarik geratuko.



3. F.G.F.-G.F.F. desegin egin behar da hauetako bat gertatzen bada:
 - a) Federazioaren onarpen ofiziala baliogabetzea, non eta erregimen orokorreko elkarte bihurtzen ez den.
 - b) Administrazio izaerako funtzio publikoak behar bezala betetzea guztiz ezinezkoa izatea.
 - c) Federazioko organoak gelditzea, eta, ondorioz, funtziona dezaten ezinezkoa izatea.
 - d) Eskuordetzen zaizkion funtzio publikoak ez betetzea.
 - e) Beste kirol federazio batekin bat egitea.
 - f) Beste kirol federazio batean sartzea.
 - g) Indarrean diren legeetan jasota dagoen beste edozein arrazoi gertatzea.

106. artikulua.

1. Federazioko lehendakariak Batzar Nagusiari deituko dio, dagokion desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeteko epean hartu behar da, desegitea eragiten duen kausa ezagutzen den unetik zenbatzen hasita.
2. Pertsona federatuek eta eskumena duen administrazioak berak lehendakariari eskatu ahal izango diote Batzar Nagusia dei dezan, baldin eta, haien ustez, aurreko artikuluren 2. puntuan zehaztuta dauden kausetako bat gertatzen bada.
3. Baldin Batzar Nagusia ez bada deitzen, baldin ezin bada adostasuna lortu, edo ez desegitea adosten bada, edozein federatuk edo eskumena duen administrazioak berak Federazioaren desegitea judiziala eskatu ahal izango du.
4. Federazioaren administrazio organoa bera behartuta dago desegite judiziala eskatzera, Federazioaren erabakia desegitearen aurkakoa baldin bada, edo ezin bada desegitea lortu.
5. Administrazio organoko kide guztiek erantzun beharko dute baldin eta Federazioa desegiteko Batzar Nagusia bi hilabeteko epean deitzeko obligazioa betetzen ez badute, edo desegite judiziala eskatzen ez badute bi hilabeteko epean, Batzar Nagusia egiteko aurreikusitako egunetik, hau osatu ez bada, kontaktzen hasita, edo Batzar Nagusia egiten denetik, erabakia aurkakoa bada, kontaktzen hasita.

**107. artikulua.**

1. Federazioa desegindakoa, likidatzeko aldia hasten da, bat-egiteak edo desegiten den federazioko aktiboen eta pasiboen lagapen globala gertatzen denetan izan ezik.
2. Federazioak nortasun juridikoa gordeko du likidatzen ari den bitartean. Aldi horretan «likidatzen» hitza gehitu beharko dio bere izenari.
3. Federazioak likidatzen ari dela adierazten duen unean, administrazio organoak bere funtzioak bertan behera utziko ditu, eta likidatzaileek euren gain hartuko dituzte funtziook. Hala ere, administrazio organoko kideek parte hartu beharko dute likidazio eragiketak gauzatzeko.
4. Lehendakaria buru izango duen eta idazkaria zein diruzaina bertan izango diren, bost batzarkidez osatutako batzorde likidatzailearen bitartez, bere ondarea likidatuko da.
5. Bai likidatzaileak izendatzen direnean bai kargutik kentzen direnean, Kirol Erakundearen Euskadiko Erregistroan jaso beharko da.

108. artikulua.

1. Honako hauek dira Federazioko likidatzaileen funtzioak:
 - a) Administrazio organoarekin batera, euren funtzioetan hastean Federazioak duen hasierako balantzea onartu.
 - b) Federazioko liburuez eta gutunieriaz arduratu eta horiek zaindu, bai eta Federazioaren ondarearen segurtasuna bermatu ere.
 - c) Federazioa likidatzeko egiteke dauden eragiketak nahiz eragiketa berriak gauzatu.
 - d) Federazioaren ondasunak eta eskubideak besterendu. Ondasun higiezinak enkante publikoan salduko dira nahitaez. Kirol eskumena duen administrazioak baimentzen duen kasuetan baino ezin izango dira zuzeneko salmentak egin.
 - e) Transakzioak eta arbitrajeak adostu, Federazioaren interesei hala komeni zaienean.
 - f) Hartzekodunei ordaindu.
 - g) Federazioaren ordezkari izan.



2. Likidatzaileek iruzurrik edo arduragabekeriarik egiten badute, federazioaren, hango kideen eta beste pertsona edo entitateen aurrean erantzun beharko dute.
3. Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute. Balantzea Batzar Nagusian aurkeztuko da, bertan onetsia izan dadin, eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da.

109. artikulua.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak likidazioa zainduko duten pertsonak izendatu ahal izango ditu, indarrean dagoen legeria betetzen dela ziurtatze aldera.
2. Federazioak administrazio organorik edukiko ez balu edo bere egitekoei uko egingo balie, Gipuzkoako Foru Aldundiak likidatzaileak izendatu ahal izango ditu.

110. artikulua.

Honako hauek dira likidatzaileen jarduera amaitzeko arrazoiak:

- a) Likidazioa burutzea.
- b) Batzar Nagusiak emandako ahalordeak baliogabetzea.
- c) Kirol eskumena duen administrazioak ahalordeak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea.
- d) Erabaki judiziala.

111. artikulua.

1. Baldin eta Federazioak ez badu kaudimenik, likidatzaileek berehala eskatu behar dute dagokion lehiaketa adierazpena.
2. F.G.F.-G.F.F. desegiten bada, Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoak erabakiko du likidazioaren ondorioz geratzen den ondarearekin zer egin, baina betiere lehenetasuna futbola eta areto futbola sustatzeak izango du.



XI. TITULUA - ESTATUTUAK ETA ONARTZEA ETA ALDATZEA

112. artikulua.

1. F.G.F.-G.F.F.-ren Estatutuak onartzeko edo aldatzeko ondoko prozedura erabiliko da:
 - a) Federazioaren zerbitzu juridikoek aurreproiektuaren zirriborroa prestatuko dute, legez ezarritako oinarrien gainean.
 - b) Zirriborroa amaitzean, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaio, txosten argudiatua onar dezan.
 - c) Onespena lorturik, Batzar Nagusiko kide guztiei, banan-banan, testua igorriko zaie, eta - gutxienez hamar eguneko epea emango zaie egoki iritzitako zuzenketa eta iradokizun argudiatuak aurkezteko.
 - d) Batzar Nagusia deituko da, berari baitagokio erabakitzea, eta proposatzen diren testua eta zuzenketak eztabaidatu ondoren erabaki egingo du.
 - e) Onspena eman ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoari aurkeztuko zaio erabakitakoa, onar dezan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dezan.
 - f) Aipatu estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira, Euskadiko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatzeko.
2. Estatutuak aldatzeko prozesua, legeak hala aginduta ez denean, F.G.F.-G.F.F.-ren lehendakariak edo Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herenek proposaturik jarriko da abian.
3. Estatutuak onartzeko edo aldatzeko Ezohiko Batzarrera bertaratzen diren kideek bi herenek eman beharko dute aldeko botoa.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatutu hauetan ezarritako mugak eta epeak egun naturalei dagozkie, besterik xedatzen ez bada behintzat.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Zuzendaritza Batzordeak 99. artikuluan jasotako barne- eta gobernatze zuzenaren araubidea Batzar Nagusiari aurkeztu beharko dio, honek onar dezan. Horretarako, estatutu-erreforma hau onartzen denetik urtebeteko epea izango du.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean.



Donostia, 2021eko ekaina